

BALIO PROPOSAMENA



Gure enpresak, etxera bueltatzeko bide seguru bat ahalbidetzen du. Beraz, biztanleria osoak duen arazo larri bat konpontzen du, guztiok beldurra sentitzen dugulako etxera bueltatzerakoan. Ondorioz, segurtasuna eskaintzen dugu eta jendearen erosotasuna bermatzen dugu.

Aplikazio honen helburua abian dago, existitzen baita 016 zenbakia tratu txarrak edo edozein motatako eraso matxista jasan ondoren deitu dezakezuna. Baina gure ideiak oso berezitasun garrantzitsu bat gehitzen du, hau da, edozein ordutan emakumeek zein gizonek deiak egiteko aukera dute, etxera edo edozein lekutara bueltatzerako bidean beldurra sentitzean 24 ordu operatibo egongo da aplikazioa.

Hau guztia, tresna berdinean egingo da eta honen funtzioak hurrengoak dira:

- Bizikidetzak sustatzen du deiak erabiltzaileen artean direlako.
- Geolokalizatzeko aukera (norberaren lokalizazioa jabeek soilik ikus dezakegu).
- Larrialdi-egoeretan poliziaren berehalako presentzia eskatzeko aukera izango du.
- Bide seguruak eta argitsuak erakusten dituen mapa bat izatea eta mapa horretan poliziaren bulegoa non dagoen agertuko da.
- Kamararen aktibazio zuzena larrialdi egoera baten aurrean.

Alde batetik, balio kualitatiboa du. Hori lotuta, gure aplikazioaren diseinua dago. Gure egunerokoan teknologiak geroz eta garrantzi handiagoa du. Hori dela eta, bereziki gazteek badakite nola erabili appak, gehienek mugikorra baitute.





Gure app-a erabiltzeko oso erraza da: instalazioa dohainik da. Erregistratzen den bakoitzak, datu batzuk sartu beharko ditu, segurtasuna bermatzeko (izen abizenak, NAN zenbakia, sexua, adina). Segurtasuna ahalbidetzeko aplikazio honek sistema batekin bat egingo du, informazio hori kontrastatzeko. Gainera, telefono deiak grabatuko dira eta arazo bat egonez gero, erabilgarriak izan dadin. Lasai egon ahal dira gure datu-babesa oso ziurra delako.

Aplikazioak berez dituen funtzioez gain, hiabetero tabu diren gaiei buruzko hizketaldi digita bat edukiko dute, hala nola, biolentzia etab.